

## **2021eko Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 13. Jaialdian parte hartzeko oinarriak eta baldintzak**

**Izena emateko epea: 2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 1era**

### **JAIALDIAREN DESKRIBAPENA**

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE erakundeak antolatzen du Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia. Giza garapen kulturartekoa, bidezkoa eta jasangarria sustatzen du, komunikazioaren eta kulturaren bidez.

Urtero egiten da jaialdia, eta askotariko eta konpromiso sozialez betetako zinema erakusten du, ohiko pantailetatik kanpoko zinema, alegia. Jaialdiaren edukiak lau ardatz tematiko ditu: garapen jasangarria, giza eskubideak, kulturartekotasuna eta genero-berdintasuna.

Azken urteetan etengabe egin duen lanari esker, ezinbesteko hitzordua da zinema eta komunikazioa gizartea eraldatzeko erabil daitezkeela uste duten pertsona guztientzat. Ikus-entzunezko lanen bidez, gizateriaren zenbait errealitate islatzen dituzten pertsona guztiak omentzeko gunea ere bada.

Jaialdiak berdintasunaren aldeko kuotak eta ekintza positiboak ezarri ditu, hasiera-hasieratik, lanak aukeratzeko eta zabaltzeko, emakumezko zinemagileen presentzia bermatzeko eta epaimahaikideak hautatzeko, besteak beste.

Bilboko 2020ko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko

12. Jaialdiaren Aftermovie-a:

<https://vimeo.com/472966365>

**Jaialdian parte hartzeak berekin dakar oinarri eta baldintza hauetan jasotako betekizun guztiak erabat onartzea.**

**Jaialdiak ez dio inolako ordain ekonomikorik ematen parte hartzen duen lana inskribatzen duen edo haren eskubideak dituen pertsonari.**

Jaialdiaren egoitza nagusia Bilboko Azkuna Zentroa da. 2021eko urriaren 14an hasi eta 21ean amaituko da, baina abuztuan eta irailean zenbait film emango dira, jaialdia sustatze aldera. Film horiek ere lehiaketan hartuko dute parte, eta ikusleek botoa emateko aukera izango dute. Saria lortzen duten lanak urriaren amaieran edo azaroaren hasieran proiektatuko dira berriro. Gutxienez 25 proiektzio-gune egongo dira Euskadin; horietatik, 14 batxilergoko eta lanbide-heziketako institutuak izango dira.

**NORK HAR DEZAKE PARTE?**

Munduko edozein tokitako pertsona eta talde guztiek aurkez dezakete euren lana, ez baita kontuan hartuko ez jatorria edo nazionalitatea, ez filma beste jaialdi batzuetan aurkeztu den ala ez. Adingabeek heldu arduradun baten baimena izan behar dute.

Pertsona edo kolektibo bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez ditzake, betiere egiletza- edo banaketa-eskubideak baditu. Parte-hartzaileraren batek eskubide horiek urratuz gero, jaialdiak ez du bere gain hartuko horren ondorioz gerta daitezkeen arau-hausteen erantzukizuna.

Aipatutako lau ardatzetako bat jorratzen duten film laburrak, ertainak edo luzeak aurkez daitezke, fikziozkoak, dokumentalak edo animaziokoak.

Filmak jatorrizko hizkuntzan aurkeztu behar dira, eta, jatorrizko hizkuntza gaztelania eta/edo euskara ez bada, **bi hizkuntza horietako batean (gaztelaniaz edo euskaraz) azpigitulaturik egongo dira.**

**Lehiaketan aurkezten diren lanak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak izango dira.**

## **JAIALDIKO SARIAK**

Jaialdiak bere lau ardatz tematikoekin lotutako 9 sari ematen ditu, eta, gainera, Ikusleen Saria.

Sari bakoitza 2.000 eurokoa da; zenbateko hori aldatu egin daiteke, kasuan kasuko erakundeen ekarpenen arabera.

Sariak zuzendariei emango zaizkie, eta Espainiako legeak (BEZari edo PFEZri buruzkoak) ezarritako zergen eta arauen mende egongo dira.

### **Sariak ardatz tematikoen arabera**

- **Garapen Iraunkorraren saria:** garapen-ereduek gizartean, politikan, ekonomian eta ingurumenean dituzten eraginei buruzko ikus-entzunezko lanak hartzen ditu barne, bai eta giza ongizatea eta jasangarritasuna hobetzen laguntzen duten proposamen alternatiboei buruzkoak ere.
- **Giza Eskubideen saria:** giza eskubide indibidualen eta kolektiboaren sustapenari eta bermeari buruzko ikus-entzunezko lanak hartzen ditu barne, eta errespetuaren eta oinarrizko askatasunen aldeko borrokari buruzkoak. Era berean, korrante politiko autoritarioen, elitisten, arrazisten, xenofoboaren, LGBTifoboaren eta edozein diskriminazio-motaren aurkako borroka sustatzen duten film guztiak sartzen dira, bai eta pobrezia eta gizarte-bazterketa eragiten duten arrazoiak salatzen dituztenak ere.
- **Genero Berdintasunaren saria:** berdintasunezko kultura eratzen laguntzen du eta gizartean genero-berdintasunaren aldeko aldaketarako tresnak sortzen ditu. Sail

honetako lanek hausnarketa eta pentsamendu kritikoa eragiten dituzte emakumeen eta gizonen artean nagusi den desberdintasun-errealitatearen inguruan, edota sistema patriarkalaren ordezkotako ereduak proposatzen dituzte.

- **Kulturartekotasunaren saria:** munduan dauden kulturen aberastasuna eta aniztasuna islatzen ditu, bai eta giza migrazioekin eta kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzarekin lotutako gaiak ere. Gainera, arrazakeria, bereizketa, xenofobia eta beste diskriminazio-mota batzuk salatzen ditu.

### Ekintza positiboen sariak

- **Emakume batek egindako lanik onenaren saria:** emakume zuzendarien lana jartzen du agerian, eta emakumeek ikus-entzunezko komunikazioan parte hartzea sustatzen du, filmetan jorratutako gaiez harago. Sail horretan, emakumezko zuzendaria edo zuzendari-kidea duten lan guztiak sartuko dira.
- **Euskaraz egindako gizarte-lanik onenaren saria:** euskaraz egindako eta/edo euskarazko azpigituluak dituzten lan guztiak sartuko dira. **Kategoria honetan ez dira sartuko euskaraz azpigitulatutako gaztelaniazko lanak.**
- **Zinema ikusezinaren saria:** jaialdian nabarmendutako lanetako bati agerikotasuna eta aintzatespena ematea du helburu.

### Ikusleen sariak

- **Balio Hezkuntzaren saria:** batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeetan ematen diren film laburrak hartzen ditu barne. Ikasleen artean zinema soziala eta pentsamendu kritikoa sustatzea du helburu.
- **Ikusleen saria:** hezkuntza-arlotik kanpoko egoitzetan ematen diren lehiaketako lan guztiak hartzen ditu barne, egoitza horietan emandakoek euren saria baitute.

## LANAK BIDALTZEKO ERAK

Lanak bidaltzeko modua edozein dela ere, ezinbestekoa da izena online ematea, jaialdia antolatzen duen elkartearen webgunean dagoen inprimakiaren bidez: [www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org).

Lanak formatu digitalean edo fisikoan bidal daitezke lehiaketara. **Bidalketa- eta itzulketak-gastuak parte-hartzaileek ordainduko dituzte.**

Lanak bidaltzeko, honako hauek erabil daitezke:

- a) [www.festhome.com](http://www.festhome.com) eta [www.clickforfestivals.com](http://www.clickforfestivals.com) atariak (HD kalitatea onartzen dute).
  - b) Vimeo edo Youtube, iraungipen-datarik gabeko deskarga-baimenarekin. Esteka helbide honetara bidali behar da: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org).
  - c) Dropbox, Myairbrigde, Mega, Wetransfer edo antzeko beste plataforma baten deskarga-esteka helbide honetara bidaliz: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org).
- Lana ezin bada aukera horien bidez bidali, jarri gurekin harremanetan helbide honetan: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org)

**KCD GGKEak informazio hau bidaltzeko eskatuko die aurrez hautatutako lanei:**

1. Zuzendariaren argazkia
2. Zuzendariaren curriculum eta filmografia
3. Filmaren kartela
4. Filmaren hiru fotograma edo argazki, ahalik eta kalitaterik onenekoak.

Jasotako argazkirik onenak aukeratuko ditugu:

- Jaialdiaren kartelaren irudi nagusia izateko.
- Jaialdiaren erakusketan agertzeko, Metro Bilbaon.

**Dokumentazioa erakundeak adierazitako epean bidaltzen ez duten lan guztiak jaialditik kanpo geratuko dira.**

## HAUTAKETA

Jaialdiko Hautaketa Batzordea emakumeek eta gizonak osatuko dute berdintasunez.

Lanak irizpide hauen arabera hautatuko dira:

- Jaialdiaren ardatz tematikoekin bat etortzea.
- Kalitate zinematografikoa.
- Jaialdiaren xede-publikoetara egokitzea.

Aurreko irizpideak alde batera utzi gabe, **ekintza positiboak** egingo dira hautaketan, honako hauek sartzeko:

- Hegoalde globaleko herrialdeetako zuzendariak egindako lanak.
- Emakumeek egindako lanak.
- Euskarazko lanak.
- Ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat irigarriak diren lanak.

Lanak edozein kategoriatan inskribatzen direla ere, Jaialdiko Hautaketa Batzordeak erabakiko du, azken batean, zer kategoriatan sartu, eta erabaki hori apelaezina izango da.

2021eko uztailaren amaieran, parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie euren lana hautatua izan den ala ez. **Behin Hautaketa Batzordearen erabakia jakinarazita, lana ezingo da jaialditik kendu.**

Programazioa zehaztu ostean (**2021eko irailean**, gutxi gorabehera), filmak zer lekutan eta zer egunetan emango diren jakinaraziko da. Jaialdiak, ahal den neurrian, hautatutako lanen ordezkariak emanaldietan parte hartzea sustatu eta babestuko du.

## EPAIMAHAIA

Genero-ekitaterako ekintza positiboak egiteko asmoz, **epaimahaiko kideen % 66 emakumeak izango dira**. Garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren arloetako edo beste diziplina sozial, kultural edota artistiko batzuetako pertsonak osatuko dute epaimahaia.

Kategoria guztietan hartzen diren erabakiak apelaezinak izango dira.

## ERABILTZEKO BAIMENA

Parte-hartzaileek **berariazko baimena ematen diote KCD GGKEari honako jarduera hauek egiteko:**

- Lanak jaialdian parte hartzen duen bitartean behar beste aldiz erreproduzitu, ikusi eta proiektatzea ikusleentzako emanaldietan, baita data ofizialen aurreko eta jaialdia amaitu osteko emanaldietan ere.
- Jaialdian ikusteko eta erakusteko behar diren formatuetara egokitzea.
- Jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batzuetan azpitolatzea.
- Lanaren material, irudi eta/edo zatiak prentsa-dosierretan, material inprimatuetan eta/edo jaialdiko sare sozialetan erabiltzea, jaialdiaren ikus-entzunezko sustapena egiteko.

Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak izaera presentzialari eutsiko dio sail ofizialetan. Hala ere, proiektzioak aurrez aurre egitea ezinezkoa bada, ONLINE formatuan eskainiko dira.

Sariak banatzeko ekitaldia ONLINE emango da, egoera edozein dela ere, antolatzaileek “Film Sozialak” jaialdirako aukeratutako online streaming plataformaren bidez.

Online emanaldiak ikusteko, izena eman beharko da, eta filma ikusteko denbora mugatuta egongo da.

Oinarri hauen interpretazioari buruzko zalantzarik badago, edo horiek aplikatzearen ondorioz gatazkarik sortzen bada, jaialdiaren antolatzaileek ebatziko dute. Jaialdiaren antolatzaileek eurentzat gordetzen dute oinarri hauetan salbuespen zehatzak egiteko eskubidea, betiere ezinbesteko arrazoiak badaude. Horrelakorik gertatuz gero, eragindako pertsona guztiei jakinaraziko zaie.

**2021eko Bilboko “Film Sozialak” Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 13. Jaialdia**  
Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE

**KOMUNIKAZIOA**

Jaialdiak dibulgazio-tresna hauek ditu:

Webgunea: [www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

Twitter: @KCDONGD

Facebook: @CineInvisibleBilbao

Instagram: @kcdongd

Tel.: +34 946024668

Helbide elektronikoa: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org)

**DATUEN BABESA**

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legea betez, honen bidez jakinarazten da lanak inskribatzean biltzen diren datu pertsonalak KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO KCDren titulartasunpeko fitxategi batean sartuko direla.

Jaialdiko partaide gisa duzun loturaren ondoriozko jarduera administratiboak gestionatzea eta lehiaketarako prozesuen eta tramiteen inguruko informazioa bidaltzea da fitxategiaren helburua. Izen-ematea tramitzeko beharrezko datuak baizik ez dizkizugu eskatuko, eta horretarako soilik erabiliko ditugu. Eman dizkiguzun datuak ez dizkiegu hirugarrenei lagako eta ez ditugu beste edozertarako erabiliko, aurretiaz zure baimena propio jaso barik.

Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezeztatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, indarreko legeriak agindutakoarekin bat. Horretarako, [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org) helbidera idatzi behar duzu, 94 602 46 68 telefonora deitu, edota eskutitz bat idatzi KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO KCD erakundeari (Beurko Zaharra, 3 – 3. pabiloia, 12. bulegoa, 48902 Barakaldo).